

DURANGOKO UDALERRIAN GAZTEEK ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK ESKURATZEKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.

Lehenengoa.- Deialdia.

Honen bitartez, "Gazteei zuzendutako Etxebizitzen alokairurako laguntzak" izeneko diru-laguntzen deialdia egingo da, konkurrentziako lehian eta Diru-laguntzen Udal Ordenantza Nagusian ezarritakoa betez, arreta berezia jarritz Ordenantza horretako III. Atalean, zeina 2004ko martxoaren 25ean onartu baitzuen Udalbatzak behin betiko eta 2004ko apirilaren 13ko 68. zenbakiko BAOn argitaratu baitzen. Era berean, aipatutako atala 2004ko maiatzaren 27ko Udalbatzako Akordio bidez aldatu zen, 2004ko abuztuaren 3ko 148. zenbakiko BAOn eta Udalaren webgunean argitaratua izanik.

Deialdi honetan aurreikusi gabe dauden kasuetarako, Udal Ordenantza aplikatuko da.

Bigarrena.- Deialdiaren erregimenaren helburua eta justifikazioa.

Honako hauek dira deialdi honen helburuak:

- o Gazteei babesa ematea euren emantzipazio prozesuan eta helduen mundura sartzeko unean.
- o Durangoko leku guztietan alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera ematea gazteei.

Hirugarrena.- Aurrekontua.

Deialdi honetarako aurreikusitako kopuru globala 70.000,00 eurokoa da, eta Udal Aurrekontu Orokorreko 41.3340.48101 aurrekontu-partida aplikatuz egin ahal izango zaio aurre.

Aldez aurretik adierazitako zenbatekoa areagotu egin daiteke, Gazteria eta Kirol Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzetik erator daitezkeen eta agortu ez diren aurrekontuen arabera, edota onar daitezkeen aurrekontu aldaketetatik eratorritakoen arabera, laguntzak ebatzi aurretik. Egoera jazotzekotan, dagokion ebazpen bidez iragarriko da.

Laugarrena.- Xedea.

Laguntza hauen xedea da ohiko egoitza gisa alokairuko etxebizitza duten 18 eta 35 urte bitarteko gazteen alokairu gastuak diruz laguntzea.

Diru-laguntza oinarriotan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak 2022. urtean izandako alokairu-gastua kontuan hartuta, betiere, baldintza horiek denbora-tarte horretan mantentzen badira.

Ez dira kontuan hartuko eranskinei (garajea edo trastelekua) dagozkien alokairuak, ez eta komunitate eta administrazioako gastuak edo kontribuzio eta zerga kontzeptupean sortutako gastuak ere, kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuaren kostutik kanpo geratzen dira aparkalekua edo trastelekua bezalakoetatik eratorriak, bai eta komunitate-gastuak ere. Gastu horiek banakatuta agertu beharko dute alokairu-kontratuan. Kontratuan sartuta badaude eta bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten ez bada, 30 euroko balio finkoa deskontatuko zaio hileko kostuari kontzeptu horiengatik.

Bosgarrena.- Izaera eta erregimen juridikoa

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak arautuko du diru-laguntza, lege horren 22.1 artikuluekin bat etorruta. Aipatutako diru-laguntza Durangoko Udalaren 2023ko Aurrekontuetan aurreikusita dago, 2022-2024 Diru-Laguntzen Plan Estrategikoaren barruan, 2021eko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran onetsia, eta bertan informazio hau dago:



Kodea: 2.3340.2.ALO

Diru-laguntza: gazteen alokairurako diru-laguntza deialdia

Zenbatekoa: 70.000€

Partida: 41.3340.48101

Seigarrena.- Onuradunak.

Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldiaren kargurako laguntzen onuradunak oinarri hauek argitaratzen diren egunean eta diruz lagundu daitekeen epean Ordenantzako 5. artikuluan modu orokorrean zehaztutakoa eta ondorengo baldintza zehatzak betetzen dituztenak izango dira:

- a) Gazte emantzipatuak, 18 eta 35 urte bitartekoak, aldi berean alokairu-kontratu baten titularrak direnak. Ezin da logelarik berrakuratu.
- b) Kide batek ere ez izatea bere jabetzako etxebizitzarik. Salbuespena izango da herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako etxebizitza baten edo batzuen titularkide izatea, baina baldin eta titularkidetasun horren portzentaje batek ere ez badu % 50 gainditzen eta etxebizitza-partaidetzen balioa 75.000 eurotik gorakoa ez bada. Eskatzailearen ardura izango da ondasunen balioaren egiaztatzea (jabetzan dituen ondasunen tasazioa egitea). Era berean, salbuespen dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, baldin eta beren etxebizitza utzi behar izan badute segurtasun-arrazoiengatik.
- c) Onuradunek ezin izango dute, aldi berean, alokairu kontzeptuagatik beste inongo laguntzaren onuradunak izan, diruz lagundu daitekeen epean.
- d) Onuradunek diruz lagunduko den etxebizitzan erroldatuta egon behar dute. Horrez gain, Durangoko udalerrian egon beharko dira erroldatuta, gutxienez urtebeteko etenik gabeko antzintasunarekin, eskaera aurkezten den unean, edo, behintzat, etenik gabe 5 urtez udalerrian erroldaturik egon izanak.

Diruz lagundu daitekeen epean, kontratuaren titularrak eta beraien kargura dauden adin txikikoak baino ezin izango dira egon etxebizitzan erroldatuta. Erroldan altak edo bajak badaude, behar bezala justifikatuta egon beharko dute, eta dagokion titulartasun aldaketa jasota geratu beharko da etxebizitza horren alokairu-kontratuan.

Kontratua hasi baino lehenagoko datarekin, kontratuaren titularrak ez diren pertsonak etxebizitzan erroldatuta baleude, kontratuaren titularrek erroldako baja-eskaera egin beharko dute pertsona horientzat, diruz lagundu daitekeen epearen barruan. Borondatezko baja pertsonalik ez da onartuko.

- e) Diru-laguntzen onuradunen diru-sarrerak ezin izango dira 25.000,00 euro gordin baino gehiago izan urtean.

Urteko diru-sarrera gordintzat jotzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga oinarri orokorra gehi lan etekinei aplikatutako hobariak, bai eta zergagarria ez den beste edozein diru-sarrera ere.

- f) Diru-sarreraren osaketari dagokionez, betetako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da izan 601,10 eurotik gorakoa urteko.
- g) Diru-laguntzen onuradunek Durangoko Udaleko eta beste edozein administrazio publiko batzuen zerga, tasa, ariel eta zehapenak ordainduta izan behar dituzte.

- h) Etxebizitzan bizi diren pertsonen artean ezin izango da egon inongo lotura familiarrik onuradunen eta errentatzailearen artean, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

Zazpigarrena.- Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Durangoko udal mugartean egon beharko da.
2. Hauek dira salbuespenak:
 - a. Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
 - b. Berrakurak.
 - c. Logelen alokairuak (logela eskubidea).
 - d. Etxebizitza gisa erabilitako lokalak
3. Etxebizitzaren alokairua ezingo da hilean 700 euro baino altuagoa izan, familia unitateentzat edo gehienez hiru kideko taldeentzat. Familia unitate izan ez, eta hiru pertsona baino gehiago direnean, gehienez, kideko 250 euro ordainduko dute.

Edozelan ere, alokairu kontratuen iraupena Hiri Errentamenduen azaroaren 24ko 29/94 Legean ezarritakoaren menpe egongo da. Ez da onartuko urte 1 baino iraupen txikiagoa duen kontraturik ezta denboraldiko kontratuak ere.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean jarri zenetik, nahitaezkoa da herriko alokairu kontratuak erregistratzea, eta baita alokairu horietatik eratorritako fidantzak ere, Bizilagun zerbitzuaren bitartez Eusko Jaurlaritzara bideratutakoak.

Zortzigarrena.- Dokumentazioa

1. I. eranskin gisa agertzen den instantziarekin batera, eskatzaileek behean adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute: Eskatzaile bakoitzak eskaera bat bete beharko du.

- a) Erantzukizunpeko aitortpena, honakoak adieraziz: alokairuko etxebizitzan bizi d(ir)en edo biziko d(ir)en pertsona(k), deialdiaren baldintza zehatzak betetzen dituztenak.
- b) Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NANA edo egoitza-txartela. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere eman beharko da.
Azken dokumentu hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
- c) Etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, jabetzaren erregistroak emandakoa, elkarbizitza unitatean bizi diren 18 urtetik gorako kide guztientzako laguntza eskaera eman baino hilabete baino lehenagokoa.

Etxebizitza baten edo batzuen titular-kide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:

- a. Herentzia-kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzak;
- b. Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura
- c. Bi kasuetan, partaidetza-salmena bada: eskualdatze-eskritura.
- d) 2022. Urtean zehar alokairuaren ordainketaren bankuko egiaztagiria.
- e) Etxebizitzaren alokairu-kontratua (Bizilagunen erregistratuta), indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epearen barrukoa. **Laguntza eskatzen duten 18 eta 35 urte bitarteko pertsona guztiek kontratu horren titularrak izan beharko dute.** Seme-alabak euren kargura dituzten izatezko bikoteak edo senar-emazteak salbuetsita geratuko dira.

f) Azken zerga-ekitaldiko diru-sarreraren ziurtagiria, A edo B kasuen arabera:

- A) PFEZ aitortzeko derrigortasuna baduzu edo dagoeneko aitortu baduzu, honakoak eman beharko dituzu:
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela eta, betetako azken zerga-ekitaldian aurkeztutako aitortpena eskaera hau aurkezteko unean.
 - Gainera, zergapekoak ez diren prestazioak jasoz gero, prestazio horien ziurtagiria

- B) PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez baduzu (eta ez baduzu aitortu), honakoak eman beharko dituzu:

- Kasu guztietan,
 1. Ekitaldi horretan (eskaera hau aurkezteko unean betetako azken zerga-ekitaldia) PFEZ aitortpena aurkezteko derrigortasunik ez izatea egiaztatzen duen Foru Ogasunaren ziurtagiria.
 2. Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emanda.

Gainera, eta hala behar denean:

3. Besteren konturako langileen kasuan, kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrera gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa.
4. Pentsiodunen edo bekak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.

Eskatutako dokumentuak Udalaren esku baleude, eskatzailea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikuluko d idatz-zatian ezarritakoaren menpe jarri ahal izango da, betiere, dokumentu horiek aurkeztu edo jaulki zireneko organo edo egoitza eta eguna adierazten badira, eta ez badira bost urte baino gehiago igaro dagokien prozeduraren amaieratik.

Bederatzigarrena.- Aurkezteko epea eta lekua.

1. Eskaerak aurkezteko bi bide daude:

- On-line. Durangoko Udaleko egoitza elektronikoaren bitartez. Horretarako, baliodun agiri elektronikoa izan beharko du eskatzaileak
- Presentzialki Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ).

Edozein galdera edo zalantza argitzeko hurrengo helbide elektronikora idatzi daiteke: andera@durango.eus

2. Eskaerak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera

3. Eskaerak ez baditu deialdiaren baldintzak betetzen, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean baldintza horiek betetzeko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaera bertan behera utzitzat joko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako terminoetan idatzitako alde aurretiko ebazpen bidez..

Hamargarrena.- Organoak eta ebazpena, prozedura eta epeak

Alkatea izango da ebazteko eskumena duen organoa, eta berak emango ditu ebazpenak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako alde aurreko instrukzio ekintzen ostean, termino hauetan:

- a) Eskaera aurkeztutakoan, kudeaketa zerbitzua den aldetik, dokumentazioa osorik dagoela egiaztatuko du. Eskaerak ez baditu deialdiaren baldintzak betetzen, interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko gehienezko epe luzaezinean baldintza horiek betetzeko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaera bertan behera utzitzat joko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan aurreikusitako terminoetan idatzitako aldez aurretiko ebazpen bidez.
- b) Eskaerak, kudeaketa sozietatearen informazioarekin eta, halakorik beharko balitz, Gazteria eta Kiroleko Informazio Batzordearen kontzesio-proposamenarekin batera, alkateak ebatziko ditu, gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean, aurkeztu diren egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskatzaileak ulertu beharko du eskaera atzera bota zaiola.

2022ko laguntzen eskubidearen aitortpena konkurrentziako lehia bidez egingo da, eta laguntzaren kalkuluan gehienezko zenbatekoa hartuko da kontuan, betiere eskaerak aurkezteko egunean alokairuko kontraturik ez duten baina laguntzak jasotzeko gainontzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen kasurako.

Hamaikagarrena.- Ordainketa eta justifikazio prozedura.

Aitortutako diru-laguntza izaera pertsonalekoa da.

Pertsona bakoitzaren laguntza kalkulatzeko, etxebizitzaren hileroko laguntza eta kontratuko titular kopuruaren arteko zatiketa egingo da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko alokairuaren prezioaren %30tik %50era bitartekoa izango da, gehienez ere, tarte-sistema baten arabera, eskatzaileen zuritutako urteko diru-sarrera gordin kopuruaren arabera.

TARTEA	URTEKO DIRU SARRERAK	HILEKO ALOKAIRUAREN %KOA	DIRU-LAGUNTZAREN MUGA
TRAMO	INGRESOS BRUTOS ANUALES	% DEL ALQUILER MENSUAL	LÍMITE MÁXIMO DE LA SUBVENCIÓN
1	3.000€-9.000€	%50	350
2	9.001€-18.000€	%40	280
3	18.001€-25.000€	%30	210

Diru-laguntzak ordaintzeko prozesua:

Ordainketa bakarra egingo da.

Ofizioz egiaztatuko da elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonak alokatutako etxebizitzan erroldatuta daudela.

Aipatutako dokumentazioa egiaztatu ostean, laguntza modu zatikatuan ordainduko da, betetako, Aurrekontuaren Betearazpen Arauak adierazitakoaren arabera.

Hamabigarrena.- Diru-laguntza jasoko duten pertsonen betebeharrak.

Diru-laguntzen onuradunek Ordenantzaren 6. artikuluan modu orokorrean jasotako estipulazioak bete behar dituzte.

Hamahirugarrena.- Indargabetzeko arrazoiak.

Ordenantzako IV. Atalean jasotako kasuetan, diru-laguntza indargabetzeko aukera egongo da, eta, hala beharko balitz, behar ez bezala jasotako zenbatekoak itzuliko dira.

Hamalagarrena.- Bateragarritasuna.

Beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik emandako diru-laguntzak aldi berean jasoz gero, ezin izango da parte hartu deialdi honetan.

Laguntza horien eskatzaile gisa, berariaz daude baztertuta Bizigune Programaren bitartez etxebizitza alokatu duten gaztea

Hamabosgarrena.- Argitarapena.

Deialdi hau BAOn, Udalaren webgunean eta udaletxeko Ediktuen Taulan argitaratuko da, eta BAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hamaseigarrena.- Datuen babesa

Durango Udalak gazteria-politiken planifikazio, antolaketa eta kudeaketaren esparruan datuak tratatzen ditu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera. Datu pertsonalak arloan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola Eusko Jaurlaritzari eta finantza-erakundeei. Interesdunak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea du, bai eta datuon tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko eskubidea ere, Udalaren helbidera edo dpo@durango.eus helbide elektronikora komunikazio bat bidalita. Halaber, informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gardentasun-ataria: www.durango.eus

Azken xedapenak

Lehenengoa.- Baimenduta dago alokairuko etxebizitza sustatzeko Programa honi buruzko informazioa eta dibulgazioa emateko materiala argitaratzea.

Bigarrena.- Eskatera Durango Udalaren bitartez tramitatuko da, eta oinarri hauek guztiz onartzen direla esan nahiko du.